

## Bihar, 'Ixa' antzezlanaren Gurean

Hika-ko Laskurain da aktorea ▶ 4



# Indiako txotxongiloen erakusleihoa Aranburun

**TOLOSA** ▶ Herrialde hartako harizko panpinak ikus daitezke Aranburu Jauregian

**IGANDERARTE** ▶ Txotxongilo tradizionalak eta garaikideak ikus daitezke igandea bitarte ▶ 2



'Putrul Yatra, Indiara leihoa' erakusketako panpinak oso koloretsuak eta ikusgarriak dira. IRATXE ETXEBESTE

## DVD-a airetik ateratako irudiekin

'Tolosa begi-bistan' hilaren 9an aurkeztuko dute Leidorren ▶ 3



MADDI SOROA

## Kablerik gabeko sarea jarriko dute eskolan

Sicos enpresako Jon Ander Jauregi ari da; otsailean jarriko dute martxan ▶ 6

## Leitzako gazte asanblada bilduko da gaur taldearen egoeraz eta Ateka Beltzaz hitz egiteko

Nafarroaren Eguna dela eta, Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzaren kontzertua izango da Mikel Deuna elizan ▶ 7

## Informatikako Gato Lan-Party-a izan da ▶ 5

**ZURICH ASEGURUAK**

MIGUEL LARRARTE PÉREZ

Tituludun Aseguru Artekaria

ETXEA • ISTRIPUAK • DENDAK • AUTOAK • BIZITZA  
INBERTSIOAK • OSASUNA • PYMES • ...

Tel.: 943 650546 • faxa: 943 655649 • mug. 655 724 978  
Bulegoak: Gernikako arbola, 4 • 20400 **TOLOSA** • m.larrarte@euskaltel.net

## TITIRIJAICO ERAKUSKETA ▶



Atzokoak eta gaurkoak. Txotxongilo tradizionalak eta garaikideak biltzen ditu erakusketak. I. ETXEBESTE



Koloretsuak. Kolore bizikoak dira gehienak. I. E.



Zintzilik. Geldi-geldirik dira, eta zintzilik. I. ETXEBESTE



Txotxongiloak. Ipuinetako pertsonaietatik hartutakoak dira. I. ETXEBESTE

## Indiako kaleetan bezala

'Putrul Yatra, Indiara leihoa' herrialde hartako harizko panpinen erakusleihu txikia da; Aranburu Jauregian izango da ikusgai, igandeko 20:00ak aldera arte

### IRATXE ETXEBESTE

Leihotik bestaldera begiratzuz gero India ikusiko duzue. Eta, nola ez, herrialde hartako musika lasaia, sapaitik lurrera doazen eskulan koloretsuak eta harietatik zintzilika diren panpinak ezinbesteko dira bidaiari horretan. Lagungarri ere bada hormetako azalpen kartel horiei so egitea, India iparraldetik hegoaldera jasotako txotxongiloen ezaugarriak jakingo badituzue. Patxadaz eta arretaz, *Putrul Yatra, Indiara leihoa* erakusketa ikustera doazenez bestelako kultura baten, eta, bide batez, txotxongiloek hango biztanleengan sortzen duten begirunearen berri izango

dute, eta aukera izango dute, gainera, bateko eta besteko panpinen nondik norakoak ezagutzeko, eta nork sortu dituen jakiteko, eta...

Bere lurralde luze eta zabalean zehar zabalduz, eskuzorrozko, harizko, hagatzozko eta itzalezko txotxongiloen hemezortzi-hogei tradizio inguru dituzte. Lurralde bakoitzekoek izaera eta hizkuntza ezberdina dute izan, baina zera dute komunean: ekitaldiaren egiturak, antzezlantako gaiak, mezu moralak eta txotxongiloak egiteko moduak berberak direla. Guztietan ere, berebiziko garrantzia dute erritmoak eta dantzak; miniatuzako antzerki emanaldiak emateraino.

Ramayana, Mahabharata eta Puranas bezalako literatur testuetatik eta herrialdeko mitotatik eta ipuinetatik hartutako heroiak, jaunkoak eta jaunkoak istorioak antzezten dituzte Indiako txotxongiloen antzezlantza tradizioan. «Ustekabeko amaierarik gabeko istorio ezagunak eta horien eszenarantz sinpleek komunitate memoria berrelikatzen dute eta ulermen maila desberdinetara mezu garrantzitsuak igortzen dituzte», adierazi du Usha Malik, erakusketaren aholkulariari. Bada txotxongilolaria bera da mezu horien igorlea eta egilea. Bera baino ez.

Hala, txotxongiloen mundu magikoaren bidez geldirik da-

goen garai batera eraman dezake txotxongiloen egileak ikuslea. Eta baita, egungo egoerari buruzko iruzkin zorrotzen bitartez, lurrera jaitsi. Belaualdiz belaualdi transmititzen da Indiako familietan tradizio artistiko hori: ospakizunetarako erabili izan dituzte txotxongiloak bereziki, baina izpiritu gaiztoak uxatzeko ere bai, sarri. Eta, gainerako arteetan, antzerkian eta literaturan bezala, Indiako txotxongiloak nazioarteko modaren, joeren eta eragin modernoaren menpe daude.

Horregatik, zenbait estilo biltzen dituen txotxongilo mota berria sortu da Indian, eta lan esperimentaleko talde ugari daude egun: estilo tradizio-

### Igandea arte Aranburun

Igandea bitarte izango da Aranburu Jauregian *Putrul Yatra, Indiara leihoa* erakusketa zabalik. Gaur eta bihar 17:00etatik 20:00etara eta hileren 4an eta 5ean 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara irekiko dute ikusleentzat. Indiako txotxongiloak ez ezik, herrialde hartako hainbat apaingarri ere jasotzen ditu erakusketak, beste hainbat gauzaren artean. ◀

lekin elkar ekiten dute batzuk, eta antzerki, musika eta dantza garaikidearekin, besteek.

Geldi-geldirik dira Aranburu Jauregian marraztu dituzten eszenatoki batean eta hurrengoan zintzilika eta isil-isilik dauden txotxongiloak. Mugimenduan ikusi nahi badituzue, emanaldietan izango duzue horretarako aukera.

TOLOSA 750 URTE ▶

# Airezko irudiak, begietarako

'Tolosa begi-bistan' DVDa osatu dute herriko irudiekin; aurkezpena, hilaren 9an



Airetik, helikopteroz ateratako Tolosaren irudi hauxe da DVDak biltzen dituenetako bat; hilaren 9an aurkeztuko dute proiektua, Leidorren. HITZA

## IRATXE ETXEBESTE

Tolosa 750 Fundazioaren eskutik, *Tolosa begi-bistan* (Tolosaldeko airezko irudiak) DVDa argitaratuko dute egunotan, abenduaren hasieran. Gromaz produkzio etxeak Tolosaldeko airezko irudien bilduma osatu berria du, eta «azken ukituak ematen ari dira ikus-entzunezko dokumentu garrantzitsu bilakatuko den produktu honi», adierazi dute Tolosa 750 Fundazioaren arduradunek.

Lehendabizikoz, eskualde guztiko irudiak bilduko dira euskarri berean, eta askotariko esparrutan erabiltzeko balioko du: hezkuntzarako, jolas bihurtzeko... (nahiz eta lehen produktu hori, DVD formatuzkoa, hain zuzen ere, herritarrek gozatzeko bilduma izango

den». 35 minutuko iraupena du ikus-entzunezkoak, eta lokuzioak hiru hizkuntzatan egingo dituzte bertan esatariek: euskaraz, gazteleraz eta ingelesez.

Tolosa eta inguruko aipamen historikoak, ohiturak, festak eta, gehienbat, irudi ikusgarriak dira, besteak beste, DVDak biltzen dituenak. «Idatziriko soporteez gain, formato erakargarriago batean ere eduki, gorde eta gozatu ahal izango ditugu horiek guztiak», esan dute proiektuaren sustatzaileek.

Euskal Telebistarekin elkarlanean eginiko produktua da, bertako adituen eta espezialisten laguntzarekin osatua. Hala ere, airezko irudien bilduma osatzeko proiektu horrek hainbat laguntzaile ere izan ditu, «ekonomikoki anbizio handiko

egitasmoa delako izan». Tolosa 750. urteurrena Fundazioko arduradunen hitzetan, besteak beste, Kutxa Gizarte Ekintzak, Tolosaldea Garatzen elkarteak eta Eusko Jauraritzako Turismo sailak lagundu dute diruz *Tolosa begi-bistan*.

Bi eratako argitarapen itxura izango du ikus-entzutekoak, bestalde, eta oinarritzko DVDaz gain, oparitarako pentsatuta dagoen kutxa berezian ere salduko dute. «Luxuzko formatoan zortzi orrialdeetako koadernotxo ere sartzen da, Tolosari eta inguruneari buruzko testu kuttunak bilduko dituena».

Tolosa 750. urteurrena Fundazioaren helburuekin bat egirik, proiektu horrek herriko jende askoren laguntza izan du, eta Tolosaldeko herritar guztien gustuko izateko asmo-

## AURKEZPENA

**Hilaren 9an egingo dute Leidorren, 20:00etan hasita; gonbidapenak jaso behar dira aldeztu aurretik Kultur Etxean**

arekin egina dagoela esan diote HITZARI egileek. Baita kanpotarrak herrira ekartzeko helburuarekin ere, jakina.

*Tolosa begi-bistan* DVDaren aurkezpen ekitaldia hilaren 9an, ostegunarekin, aurkeztuko dute Leidor zinema aretoan, 20:00etatik aurrera. Ekitaldira joan ahal izateko gonbidapenak jaso behar direla iragarri dute proiektuaren sustatzaileek; Kultur Etxean jaso behar dira, aldeztu aurretik.

## KULTURA ▶

# Disko eta Liburu Azokaren balorazioa «baikorra da»

Udal arduradunen hitzetan, azoka «oso ondo oinarrituta» dago eta jende andana biltzen du

## I. ETXEBESTE

Urteroko moduan, San Frantzisko pasealekuan izan da aurtur ere Tolosaldeko Liburu eta Disko Azoka azaroaren 19a eta 28a bitartean, eta argitaletxe banatzaileen, liburusaltzaileen eta erakundeen artean hama-hiru erakuslek jardun dute bertan, bateko eta beste galdere erantzuten, bai eta herritarrei liburu eta diskoen inguruko aholkuak ematen ere.

«Balorazio guztiz baikorra egin behar dugu, bai azokaren

emaitzari dagokionean bai jendearen erantzunari dagokionean, azoka gunera erruz hurrildu direlako herritarrek. Salmentak onak izan direla esan dute liburu saltzaileek, eta eguraldiak ere nahiko lagundu izan du. Gehiago ezin eskatu».

Udal arduradunen hitzetan giro polita izan da azokako hamar egun horietan herrian, eta batez ere Babarrun Egunaren ospakizunean; hortaz, «oso ondo oinarrituta dagoen azoka dela esan behar dugu».

Aurreko azokan antzera, To-

losan ere gauza bera jazo da: salmentei dagokionez, Julen Gabiriaren *Han goitiki itsasoa ikusten da*, Eider Rodriguezen *Eta handik gutxira gaur*, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*, Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* eta Jon Arretxeren *Manila konexioa* izan dira euskarazko eleberrietan salduenak. Fikzioz kanpo, berriz, Agurtzane Juanenaren *Esan gabe neukana* eta Joseba Iriondoren *Palestina hotela* lanak aipatu behar.

Erdarazkoetan, Toti Martinez de Lezearen *El verdugo de Dios*, Dan Brownen *El codigo Da Vinci* eta *Angeles y Demonios*, Jose Saramagoren *Ensayo sobre la lucidez* eta Mathiew Pearlén *El Club Dante* izan dira eskatuak. Beste maila bateko liburuetan instituzioek plazaratutakoak saldu dira gehien; Aldundiarenak,

kasu: historia, artea, herriko idazleak... biltzen dituztenak.

Hala ere, haur eta gazte literatura da gehien saldu dena: Harry Potter-en lanak, *Eraztunen jauna*-renak, Xaguzahar bildumakoak, Euskal Herriko pailazoarenak, Disney pertsonaiak... Euskal musikan, Garioren *O-tik* eta Benito Lertxundiren, Mikel Laboaren, Oskorriren, Ken zazpiren, Gatiburen eta Ruper Ordorikaren azkenak izan dira disko hautatuenak. Euskal gaiak, hiztegiek eta sukaldaritzak eta gerra liburuak ere arrakasta izan dute.

Euskadiko Liburu Azokan Batzordeak antolatutako azokak Eusko Jauraritzako Kultur Sailaren babesa, Tolosaldeko Udaleko Kultura arloaren laguntza eta Euskadiko Liburu Ganbarakoa ere izan du. Durangokoaren ostean, Hondarribiakoak hartuko du lekuko.

## KIROLA ▶

### Igarondo igerilekua, asteburuan itxita

Asteburu honetan, hilaren 4a eta 5a, Igarondo igerilekua itxita egongo da. Izan ere, Euskal Herriko Kopa jokatuko da bertan.

## HEZKUNTZA ▶

### Gurasoentzat hitzaldia, gaur, Hirukiden

*Arauk eta mugak. Haurraren jokabidea modelatuz* izenburupean, Susana Egiluz Eraberri taldeko kideak hitzaldia eskainiko du gaur Hirukide ikastetxean. 0-3 urteko haurren gurasoei dago zuzenduta saioa. Adin horretako haurren heziketan gurasoek duen garrantzia mintzatuko da aditua; «garrantzi handiko gaia da, ondorengo urteetako jokaerak eta jarrerak txikitatik ikasitakoan oinarriturik baitaude», diote ikastetxekeok. Gurasoek galderak egiteko aukera ere izango dute hitzaldian. 16:00etan hasiko da saioa, Hirukide Jesuitinetan.

## MUSIKA ▶

### Kirill Chtybine akordeoilaria, Musika Eskolan



Kirill Chtybine. HITZA

Kontzertu berezia izango dute gaur Musika Eskolan. Kirill Chtybine akordeolari errusiar ospetsuak emanaldia eskainiko du, 19:00etan, Pablo Gorosabelgo entzutegian. 1980. urtean jaio zen Chtybine, Sredneursk herrian (Errusia), eta 7 urterekin hasi zituen musika ikasketak herriko Musika Eskolan. Duela bost urtetik, Moskuko Gnesin Musika Akademiaren ikaslea da. Nazioarteko lehiaketa asko irabazi ditu; besteak beste, Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa, 2002an.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Bronte C. Korreo Kalea 20

(Tolosa). Telf.: 943 67 60 13.

Erbiti O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.

tolosaldean\_publi@tolosaldeko

hitza.info

**Tolosa.** 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

**Anoetaldea.** 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

**Ibarralde.** 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

**Alegialdea.** 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

**Leitzalde.** 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

## VILLABONA ▶ KULTURA

## ‘Ixa’ antzezlanana Hika taldearen eskutik

Mikel Laskurainek antzeztutako pertsonaia berezi baten historia ezagutuko ahalko da, bihar Gurea aretoan

IMANOL GARCIA

Abenduko kultur egitarauari hasiera emanez, bihar gauean, 22:30ean, *Ixa* obra taularatuko dute Hika taldekoek Gurea aretoan. Maiatzean izan behar zuen berez emanaldiak, baina aktorearen gaixotasun bat zela medio, bertan behera gelditu zen.

Aktore bakarreko antzezlanana da bihar ikusi daitekeena. *Ixa* izena du obraren ustakebako protagonistak. Agindu diotelako joan da antzokira era han konturatuko da, antzerkiko jendeak, beste behingoz ez duela agindutako lana ordaintzeko asmorik. Horrek erabat sutuko du *Ixa* eta antzeztokira igoko da bere historia kontatzeko.

Mikel Laskurainek antzezten duen pertsonaiak «gaur egungo gizartean hain garrantzitsua den lanbide berezia du» azaltzen dute Hika taldeak eta ofizio hori izatera iristeko pasa dituen guztiak kontatzen ditu. «Ezin esan, ordea, zein den bere lanbidea. Hori du bal-

Mikel Laskurainek antzezten du *Ixa* izeneko pertsonaia. HITZA

dintzetako bat: diskretioa izatea». Azkenean bere ofizioa zein den azalduko duen edo ez Gurea aretora joan beharko da.

Antzeztanaren egileak Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurreaga dira eta azken honek egiten ditu zuzendaria lanak.



## Urteurrena ospatu zuten Alkartasunakoek

**ANOETA** ▶ Joan den larunbatean, Milagrosa egunean Alkartasuna Biltokiaren hamabigarren urteurrena ospatu zuten. Meza ondoren Ikastolan egin zen bazkaria eta 91 pertsona elkartu ziren anaitasun giro ederrean. Bazkal ondorengo dantzaldian «ahal zuenak ahal

zuenak egin zuen», elkartetik azaldu zuten eta hain ondo pasatu zuten, ezen «denak berriz beste ospakizun baterako prest» daudela adierazi dute. Bestetik, Santo Tomas egunean txistorra jatea egingo da eta bertan 20 lote zozketatuko dira bazkideen artean. HITZA

## ADUNA ▶

## Egurra ateratzeko enkante publikoa deitu du Udalak

Adunako udalbatzak Arrazubi-bixabal eta Lepasoroalde jabegoetan egur aprobetxamendua egiteko baldintzen plegua onartu ondoren, enkante publikorako deialdia egin du. Lehiakideek proposamenak aurkezteko azken eguna abenduaren 22an izango da. Lizitazioaren oinarriko prezioa 29.680 eurokoa da eta lanen burutze epea 2005eko uztailaren 31n bukatuko da. Lehiatzaileak behin-behineko bermea jarri beharko du, hau da, lizitazioaren oinarriko prezioaren %2a. Adjudikatzaileak behin betiko berme gisa, adjudikazioaren %10a jarri beharko du. Dokumentazioa eta informazioa jasotzeko Adunako Udaleko idazkaritzara jo behar da.

## IRURA ▶

## Festa Batzordeak bilera egingo du gaur udaletxean

Irurako Festa Batzordeak bilera egingo du gaur 19:30ean, udaletxean. Bileraren honetara gonbidatuak daude herriko talde, elkarte, taberna eta orohar interesa duten herritarrek. Hiru gai nagusi jorratuko dira. Alde batetik, San Miguel jaien balorazioa egingo da. Bestalde, Udalak sortu berri den eta Iruran parte den Ernioalde Udaltalde 21 egitasmoaren berri emango du. Azkenik, Eguberrietan izango den egitarauari buruz hitz egingo da. Abenduaren 17tik urtarrilaren 6a bitartean burutuko da. Ekitaldi batzuk aurreikusi dira Udaletik: antzerkia, jaiotza lehiaketa, jaiotza biziduna, txotxongiloak, pailazoak, babarrun jatea eta abar.

## ANOETA ▶

## Ipuin kontaketa saioa gaur udal liburutegian

Anoetako Udalak antolatuta, ipuin kontaketa saioa eskainiko da gaur arratsaldean udal liburutegian. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta Lamiak Taldea izango da ipuinak kontatuko dituenak. Saioa LHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzat dago zuzenduta. Antolatzaileak puntualitatea eskatzen du.



TOLOSA ▶

**Tolargi eta Tolosa Gasaren egutegia ari dira banatzen**

Tolargi eta Tolosa Gasaren bulegoetan aurtengo egutegia banatzen hasi ziren atzo. Bihar, bestalde, Amarozen auzoan Jokin Bildarraz Tolosako alkateak, Eguberritako argiak piztuko ditu 19:00etan.

TOLOSA ▶

**Ipuin kontaketa, Aitzol Udalen Euskaltegia**

Bihar, Euskararen Eguna dela eta Aitzol Udalen Euskaltegiak ipuin kontaketa antolatu du; Joxe Mari Karrere ipuin kontalari pasaitarraren lana izango da ikusgai: *Kondoi baikoitzak bere istorioa dauka* izeneko. Orain dela hamabi urte inguru hasi zen Karrere ipuinak kontatzen; eta batez ere, gazteei eta helduei zuzendutako ipuinak lantzen ditu. Bihar euskaltegia ikusgai izango den lana, 1998an aurkeztu zuen Karrere Euskal Herriko txokoetan barrena. Helduei zuzendutako emanaldia da eta 09:30ean hasiko da.

TOLOSA ▶

**Munduko desorden berria, hizpide Otsabin**

Munduko desorden berria izango dute hizpide gaur Otsabi elkartearen egingo den mahainguruan. Izaskungo auzo elkarteak antolatuta eta Kultur Astearen baitan antolatutako ekitaldia da eta bertan, herri desberdinetako ikuspegiak entzuteko aukera izango dute bertaraten direnek. Mahaingurua 19:00etan hasiko da.

ALEGIA ▶

**Gabonetako loteria, Jubilatutako Elkartearen**

Pasa den azaroaren 16tik 30era bitarte Gabonetako loteria erosteko aukera izan dute Jubilatutako Elkartearen bertako bazkide direnek; atzotik aurrera, eta amaitsu bitarte, edozein herritarrek erosi ahal izan du. 04.251 da salgai dagoen loteriko zenbakia. Bost euroko salneurria dute txartelek.

IKAZTEGIETA ▶ GIZARTEA

**Gato Lan-Party-a, asteburuan**

Ordenagailuaren aurrean, hainbat joko probatu zituzten eskola zaharrea



Party-an, Country Strike jokoaren expantsioa probatzen. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Pasa den ostiraletik igandera bitarte hoge lagun inguru bildu ziren Ikaztegietakoko eskola zaharrea Gato Lan-Party-a egiteko: «Hamalagu lagun, bost bisitari eta hamabost PC-rekin elkartu ginen, Gotzon, teknika eta softwarean aditua den Mula Franzis-en begiradapean», azaldu dute parte-hartzaileek.

Bilkura horretan, «informazioa elkartrukatzearaz gain, merkaturako hainbat joko probatu zituzten», parte-hartzaileek jakitera eman dutenez: «PC-etako bat birkonfiguratu behar izan genuen, mikroa eta plakaren arteko arazoak medio», gehitu dute.

Joko berriak

Joko ugari probatzeko aukera izan zuten: CS (Terrorista eta Antiterrorista diren bi talde pare pare aurkitzen direnena), CoD (Munduko bigarren gudan oinarritutako joko), AoE (Zibilizazio bat antolatu eta gainontzekoak menperatzeko estrategia joko), UT 2004 (etorkizuneko garaian kokatzen da)... *Monkey Island* jokoa

ere aritu ziren; joko hori, aurrekoak ez bezala, abentura grafikoa da, pirata izan nahi duen gazte baten istoria da eta inteligentzia eta behaketa joko da.

Hoherenak, katua etxera

Asteburuan egindako Gato-an ez zuten lehiaketa irekirik egin; hala ere, jokatzeko zehazten neurrian, hainbat jokalaririk nabarmendu zirela azaldu dute antolatzaileek: G4ToR deritzen jokalariekin bizkortasuna eta punteria edota AoE-ren estrategia, esaterako.

Gato Lan Party-ko parte-hartzaile bakoitzak ezizen bat izaten du: «Gure artean, berba borrokatzen ditugu, hori bai, umore onez hartzen dugu gauza».

Taldeko maskota ere badute: katu bat. Norberak dituen maskotaz gain, bilkura bakoitzean meritu gehien lortzen duenak etxera eramaten du, hurrengo partyrarte. Pasa den asteburuan, Anabasa deritzen egokitutako zitzaietan papina etxera eramatea.

Igande arratsaldean gauzak bildu, etxea txukundu eta hurrengo Gato Lan Party-rarte agurtu ziren parte-hartzaileak.

ALBIZTUR ▶ INFORMATIKA

**Opariak, erabiltzaileen kopurua indartzeko**

KZgunean izena emateko orria betetzeagatik opari ugari banatuko dituzte



Ikastaro ugari izaten dira KZgunean. MADDI SOROA

O. ESKITXABEL

Albizturko KZgunean promozio berria jarri dute martxan: «erabiltzaile kopurua indartzea» lortu nahi da horrekin, Unai Lasak, KZguneko tutoreak azaldu duenez.

Izena emateko orria betetze hutsagatik opari ugari jasotzeko aukera izango dute KZ-

gunean izena ematen duten erabiltzaileek.

Besteak beste, xirak, informatika eta Interneti buruzko liburuak, ordenagailuarentzat alfondra txikiak... banatuko dituzte izena ematen dutenen artean.

Izena emateko bete beharreko orriak Kultur Etxean eta KZgunean aurkitzen dira.

TOLOSA ▶ TXIRRINDULARITZA

**Oriako talde guztiak babestuko ditu Belcak**

Datozen lau denboraldietan babeslea izango da Adunako enpresa

O. ESKITXABEL

Industria ontzietarako makineria egiten duen Belca enpresa izango da datozen lau denboraldietan Oriako Eskolako taldeen babeslea. Javier Goezagak zuzentzen duen taldeari babes eskainiko dio horrela Adunan kokatzen den enpresak.

Datorren urtera begira, maila guztiaren taldeak izateaz gain, afizionatuen formakuntza jarraituko du Oriakok, 19 eta 20 urteko txirrindulariekin. Angel Balzolak zuzendutako taldeen babeslea. Javier Goezagak zuzentzen duen taldeari babes eskainiko dio horrela Adunan kokatzen den enpresak.

## BERASTEGI ▶ HEZKUNTZA

# Kablerik gabeko sarea

Sicos informatika enpresak Kablerik gabeko sarea proiektua garatu du, otsaila inguruan jarriko da martxan Muñagorri eskolan



Kablerik gabeko sarea proiektuko karroa. HITZA

## MADDI SOROA

Sicos, informatika enpresak, Apple-ek lehendik garaturik zuen Kablerik gabeko sarea proiektua jarriko du martxan Berastegiko Muñagorri eskolan. Proiektu hau, bakarra da Euskal Herri eta Espainia osoan eta Leader+ programaren baitan dago. Leader+ Europatik datorren programa da eta landa eremuen garapena du helburu nagusia. Proiektu berriztatzaile hau, Leader+ eta Berastegiko Udalaren diru laguntzaz burutu da. Urriaren 27an egin zen aurkezpen publikoa eta otsailerako martxan egotea espero dute.

## Kablerik gabeko sarea?

Kablerik gabeko sarea, ordenagailu eramangarri osaturiko karroa da eta kablerik gabeko konexioa du. «Beraz, eskolak ez du ordenadorez

osaturiko gela jakinik behar, izan ere, karroa edozein gelara eraman baitaiteke. Horrela, ikasleek ordenagailu eramangarria hartu eta sarera konektatuko dira gela bertan», azaldu du Jon Ander Jauregi Sicos enpresako merkataritza zuzendariak.

Karroa, zerbitzari bati konektaturik dago, baina bestalde, lan geltokia ere izango du. Lan geltoki horretan, bideo kamera, argazki kamera, mikrofonoak eta abar egongo dira. Modu horretan, Internet bidezko irrati eta telebista programak egiteko aukera izango dute hurrek, baita ikasleen aldizkaria ere. Hau da, lan geltokian irrati eta telebista estudioa ezarriko dute, horrela, eskolako ikasleek mota ezberdinetako grabaketak egingo dituzte; hala nola, eskolan egindako antzerkia, dantza, herritarrei eginiko elkarrizketak...

Bestalde, kablerik gabeko barne sarea ere instalatuko da, eskolei eta eskolako ekintzei multimedialki laguntza emateko. Hurrek kablerik gabeko sarearen bitartez eginiko lan guztiak, on-line moduan edota aurrez grabaturik igorriko dira Berastegiko Udaleko Intranet bidez. Beraz, nahi duenak hurrek eginiko lanak ikusteko aukera izango luke etxeko ordenadorean.

Jauregik adierazitakoaren arabera «punta-puntako tresnez osaturiko proiektu berriztatzailea da, beraz, funtzionamendua eta arrakasta ziurtatuta daude».

## Helburu nagusiak

Proiektu honen helburua oso anitza da, izan ere, teknologia berrietarako sarrera, erabilpena eta probetxua jorratzen baititu erabilpen eremu ezberdinetan. Helburu nagusienetako bat, hurrek eginiko telebista nahiz irratsaio eta aldizkari bitartez teknologia berriak ezagutu eta sormena garatzea da. Aldi berean, heuren buruak ikusi, aztertu eta zuzenketak egiteko aukera izango dute.

Proiektuaren bigarren helburu nagusia, Berastegiko herritarren artean teknologia berri erabilpena zabaltzea da. Horretarako, informatika produktuen eta hauen erabilpenen inguruko hitzaldiak eskainiko dira. Horrela, haurren eta herriaren etorkizuneko garapenaren garrantziak ohartarazi nahi dira herritarrek.

## Proiektua zabalduz

Kablerik gabeko sareak, ordea, badu beste asmo nagusi bat. Proiektua beste hainbat

landa eremuetara zabaltzea, hain zuzen ere. Horretarako Apple Computeren GRIMM proiektuan parte hartu behar du Muñagorri eskolak. GRIMM ikerketarako eta garapenerako proiektua da eta informazioaren teknologia eta Hezkuntzako komunikazio eremuetan egiten du lan. GRIMM proiektuaren helburu nagusia, eskola, unibertsitate eta enpresen artean hezkuntza esperientziak elkartrukatzea da. Era horretan, kablerik gabeko sarea martxan dutenen eta martxan jarriko dutenen artean gorabeherak azaldu eta elkar laguntzeko balioko du.



JON ANDER JAUREGI  
SICOS-KO MERKATARITZA ZUZENDARIA

«Helburua pedagogikoa da, egungo teknologietan murgildu eta motibazioa lantzeko balio baitu»

«Hain proiektu berriztatzailea da, guztiak poztuko dituela, ikasleak, irakasleak, gurasoak...»

## IBARRA ▶

## 'Silencio roto' ikusgai gaur Gaztetxean

Astero bezala, gaur ere zinekluba izango da Gaztetxean 21:45ean. Gaurkoan *Silencio roto* izango da eskainiko den filma eta 110 minutuko iraupena du. Montxo Armendarizek 2001ean eginiko filma da eta Lucia Jimenez eta Juan Diago Botto dira filmeko protagonistak. Luciak —Lucia Jimenez— frankismoaren garapena onartzen ez zuen *makis* talde bat ezagutuko du eta bertako partaide den Manuelez —Juan Diego Botto— maiteminduko da.

## BERASTEGI ▶

## Gaztainondon hitzaldia izango da gaur

Gaztainondo Jubilatuta Elkarrekin, hitzaldia antolatu du gaur 17:30ean elkartean. Oihana Jauregi izango da hizlaria eta arteria nahiz hipertentsioaz mintzatuko da. Arteria-tentsioa eta arteria-hipertentsioa zer diren, goitentsioa eragozteko oinarriko zaintzak zeintzuk diren edota goi-tentsioa edukita koan zer egin bezalako galderari erantzun zaitza.

## OREXA ▶

## Guraso Eskola antolatu dute Segoretan

Uli Mankomunitateak, Guraso Eskola antolatu du abendurako. Hiru saio izango dira guztira, denak ere ostegunetan burutuko direlarik Segoretan 17:30etatik 19:00etara. Abenduaren 2an *Psikologia ebolutiboa* haurtzarora landuko da, 9an *Psikomotrizitatea* eta 16an, berriz, *Afektibitatea, ama eta aita* izan.

HITZA **txokoa** lagunena

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

943 30 43 46  
(8:30 / 20:30)

HITZAren harpidedun laguntzaileen artean zozketatutako ARANZADI zientzia elkarteak argitaratutako TOLOSALDEA BERE TESTAMENTUETAN (1760-1860) 10 libururen irabazleak:

- Aritz Larreta (Amezketak)
- Izadi Egizabal (Tolosa)
- Nekane Jauregi (Tolosa)
- Karmen Iraeta (Tolosa)
- Alexander Padilla (Villabona)
- Izaskun Zarategi (Villabona)
- Edurne Zabala (Tolosa)
- Pakita Etxeberria (Ibarra)
- Regina Tolosa (Amezketak)
- Lontxa Etxarri (Leitza)

Sarituek HITZAK Tolosako Araba Etorbidea, 5 atzealdean duen egoitzan jaso dezakete liburua



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

## LEITZA ▶ GIZARTEA

# Gaur, gazte asanbladaren bilera

Taldearen egoeraz eta Ateka Beltzaz hitz eginen dute gazteek batipat

## JAIONE ASTIBIA

Gaur arratsalde, 18:00etatik aurrera, Karrapean biltzekoak dira Leitzako gazteak, eta Aresokoak ere, batez ere Gazte Asanbladaren egoeraz eta Ateka Beltzaz hitz egiteko.

Gai ordeneko lehen aztergaia, taldearen egoera bera izan dute, «antolaketa, lanerako gogoia, konpromisoa, bilkuren maiztasuna, iraunkortasuna... taldearen baitako gai dezente ditugu aztertu eta erabaki beharrak», adierazi zioten HIRZARI. Eztatidagari garrantzitsua izan dute, beraz, ahotan, gaurkoan gazteek.

Horren harira, eztabaidatu ez ezik, gazte guztien artean erabaki beharrekoa eta «gazteen iritzia izan dena» presatzea ere egiteko dute, beti ere Ateka Beltza herriko etxearen erabileraren inguruan. «Gure iritzia, gazteona eman behar badugu, herriko gazte guztiak deituta daude, Ateka Beltzaren inguruan eginen dugun eztabaidan parte hartze-  
ra», zioten deialdia zabala dela esanez eta «zenbat eta gehiago etorri, hobea» erantsiz. Hor hartutako erabakiarekin joanen



Ateka Beltzaz ariko dira. J.A.

dira gero, 20:00etan herriko beste taldeekin, Ateka Beltzaren inguruan eginen den bilera zabalago batera.

Bestalde, aurreragoan gehiago zehaztuko dutela adieraziz batera, abenduaren 11n, Goizueta eta Leitzako gazte asanbladek elkarrekin, eta «taldeak indartzeko helburuz» adierazi zuten, gazte topaketak antolatzeko asmoa dutela jakinarazi zuten, egun horretarako ekitaldiak prestatzen eta azken ukituak ematen ari direla argituz.

## LEITZA ▶

## Torrean Neubat taldearen kontzertua

Bihar ostirala, hilak 3, 24:00etatik aurrera, Gas-teizko Neubat taldearen kontzertua izanen da Torrean tabernan. Rock estiloko musika egiten duen talde horrek, bere *Dantzaldiko erreginak* izenburuko diska atera berria aurkeztuko du. Jakitera eman dutenez, sarrerarik ez omen dute jarri behar, baizik eta bertara joan direnen borondatearen truk izanen omen da. Talde horri buruz informazio gehiago jakin nahi izanez gero, bere web-orrian aurki daitezke, hots [www.neubat.com-en](http://www.neubat.com-en).

## ARESO ▶

## Bihartik aurrera boletoak salgai izanen dituzte

Guraso Elkarteak urtero egin ohi duen saskiaren zozketako boletoak, salgai izanen dituzte bihartik aurrera, herriko okindegian, euro banetan. Banatzaileek adierazi dutenez, Aresoko eta Leitzako komertzioetan emandako produktuez hornitutako saskia izan ohi da eta eskuratutako laguntza, Aresoko eskolako ikasleentzat ateraldiak, ikastaroak eta beste ordaintzeko izaten omen da. Hilaren 20eko itsuen zenbakiaren azken hiru zifrekin bat egiten duenak, jasoko omen du saria.

## JAIA ▶

## Nafarroaren Eguna dela eta hainbat ekitaldi mota

Abesbatzak hara eta honera, manifestaldiak eta Orreagaren Nafarren Biltzara Iruñean



Asketa eta Asketa Ttiki abesbatzak hantxe izanen dira Lesakan. HITZA

## J. ASTIBIA

Bihar, abenduak 3, Xabierko Frantzisko, Nafarroaren Eguna ospatuko da eta askotariko ekitaldiak burutuko dira herrialde osoan.

Horrela, Iruñean esaterako, ezker abertzaleak deitutako manifestazioaz gain, Orreaga fundazioak, Nafarren Biltzara antolatu du urtero bezala. Aurrean *Nafarroa: gizarte berri bat geure izaera galdu gabe* lelopean eginen dute kalejira, joalduak aurretik dituztela, hango udaletxeko enparantzatik 12:00etan ateraz eta Sarasate pasealekuan, hain zuzen ere Foruen monumentuaren aurrean, manifestua irakurriz eta herri kirolak, dantzariak, bertoso-

lariak txalapartariak eta beste osatutako jaialdiarekin.

Baina herrietan ere izanen da mugimendurik, izan ere, Leitzan, Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzak kontzertua eskainiko baitu, 12:00etatik aurrera, aurretik, Mikel Deuna elizan.

Eta Leitzako Asketa eta Asketa Ttiki abesbatzak, berriz, Lesakara joanen dira kontzertua ematera, herriko aretoan bertan, 12:30etik aurrera. Erreperitorio alai prestatu dute egun horretarako, *Agurra* dantziaren laguntzarekin eginez, eta beste pieza zenbaitetan musika tresnaz lagundutako abestiak eginez. Saioa *Nafarroako Gorteetako ereserkia* kantatuz hasiko omen dute, eguna halakoa delako.

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

## ETXEBIZITZAK

**Aia.** Naturaren erdian, bi logelako apartamendu berriak, garajearekin, eta duplex etxebizitza garajearekin. Mandio. 669871909.

**Aia.** Duplex, 90 m<sup>2</sup>, garajea itxita, erakuntza berriak berriak.

**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

**Asteasu.** 2 solairu, 3 logela, 2 bainu, sukalde-sala ekipatua, terraza 50 m<sup>2</sup>.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukalde, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garaje marrarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>. 41.000.000 pta.

**Corella.** Etxe abiki rustiko berriak, konstrukturak zuzenean kudeaturikoak. Porbearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukalde hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m<sup>2</sup>-ko terenoarekin. Pizina eta guzti. Eta gainera batzuk biemeneta dotorea. 13.500.000 pta. Mandio.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. polita. 669 87 19 09.

**Ibarra.** Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua.

**Ibarra.** Atikoa, terraza 40 m<sup>2</sup>, etxebizitza polita eta garaje ibiarekin.

**Irura.** 100 m<sup>2</sup>, 3 logela, dena kanpokalde, sala, 2 bainu, igogailua, kalafakzioa... Mandio. 669 87 19 09.

**Jaca.** 3 logelako apartamendua salgai. Mandio. 669 87 19 09.

**Jaca.** 110m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, 4 logela, trastelekua eta garajearekin. Mandio.

**Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia

bakarrekoak. Eraikitako azalera: 242 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin.

**Tolosa.** Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai. 15 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin, teilatu berriua, berogailuarekin. 26.000.000 pta.

**Tolosa.** Larramendi kalean 65 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukalde altzariez hornitua, kanpo aldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekua. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Foru etorbidean, leku hoberenean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup>-ko terraza.

Bista ederra. Sukalde, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa, berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Iurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko txokoa, 10.000.000 pta, tarteplanta.

**Tolosa.** Iurren, txaleta bi

lorategirekin, 3 logela, bizitzera sartzeko. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean bizitzera sartzeko berritutako apartamendua salgai. 29.000.000 pta. Mandio.

**Tolosa.** Korreo kalean, 2 gelako etxebizitza, polita, sartzeko prest, 29.000.000 pta. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean, bi logela, berogailuarekin. 29.000.000 pta.

**Tolosa.** Amaro auzoan, etxebizitzaK salgai 80 m<sup>2</sup>-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 -40.000.000 pta.

**Tolosa.** Larramendi. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 bainu, sala handia, garajea 2 autorentzat. Mandio. 669 87 19 09.

**NEGOZIOAK**

**Sagardotegiak.** Funtzionamenduan dauden sagardotegi batzuk salgai, Usurbil eta Oiartzun inguruetan, etxebizitza eta guzti. 669 87 19 09.

## LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio.

**Tolosa.** Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.

**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbide ondoan. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskurain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Trianguano eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.

**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukalde hornituta, terrazarekin. 16.000.000 pta. Mandio.

669 87 19 09.

**LURSAILAK**

**Nekazaritza** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai nekazaritza. Mandio. 669 87 19 09.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 2a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaltetzaletza, Adura, Abotzur, Alegia, Alkiza, Altoa, Amerieta, Anetoa, Balaiztan, Beldaritz, Berastegi, Etxain, Herrialde, Ibarra, Irua, Lantzi, Leizor, Luzeaga, Omeñaca, Omeñaca, Tolosa, Villabona, Zuzenbidea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza  
Kultura Salla

ERAKUNDEAK

GAURKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroena

11

hotzena

10

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

11

10

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alegia.** Pirritx eta Porrotx pailazoen *Patata, patata* 10ean. Txartelak udaletxean eta Galtzaundin.

**Anetoa.** Lamiak-en ipuinak. 18:00etan liburutegian.

**Ibarra.** Merkatu Txikirako material bilketa 17:00etatik 20:00etara Parrokian.

**Irura.** Festa Batzordearen bilera. 19:30ean udaletxean.

**Tolosa.** Kirill Chybyne akordeojoilearen kontzertua. Musika Eskolan 19:00etan.

**Tolosa.** Joxe Mari Karrereren ipuin kontaketa: *Kondo bakoitzak bere istorioa dauka.* Bihar 09:30ean Aitzol Euskaltegian.

### HITZALDIAK

**Berastegi.** Oihana Jauregi: *Arteria-hipertentsioari aurre hartu eta ezagutzeko.* Gaztainondon 17:30ean.

**Tolosa.** Kultur Astearen barruan, maingurua munduko desorden berriari buruz, herri desberdinetako ikuspegitik. 19:00etan Otsabi elkartearen.

**Orendain.** Agurtzane Lopetegiz gizarte laguntzailea: *Adinekoa eta gizarte zerbitzuak.* Erretore ebexan 16:30ean.

**Orexa.** Guraso Eskola: *Psikologia ebolutiboa haurtzaroan.* 17:30etik 19:00etara Segoretan.

### TITIRIJAI

#### Tolosa.

▶ Kultur Etxea. 10:30, 15:00 eta 18:30. El Retal (Espainia): *La niña y la luna.* Beotibar. 10:30 eta 15:00. Pitara Putli (India): *Swaagat-Festa Rajasthanen.* ▶ Kasinoa. 11:00 eta 15:00. Damiet van Dalsum (Herbehereak): *Bubbel-babbel-bos.* ▶ Leidor. 11:00, 15:00 eta 17:30. Aakar Puppet Theater (India): *Dhola Maru.* ▶ Gorosabel. 12:00 eta 15:00. Poppenteater de Spiegel (Belgika): *Gran pepona, pequeña pepona.* ▶ Kasinoa (helduak). 20:30 eta 22:30. Natana Kairali (India): *Dakshayagan Pavakathakali.*

### ZINE-KLUBA

**Ibarra.** *Silencio roto.* Gaztebexan 21:45ean.



Margolanak erosteko aukera dago. I. GARCIA



Hil honen bukaera arte ikusgai izango dira margoak. I. GARCIA

# Barruko eta kanpoko paisaiak

**VILLABONA ▶** Maxola tabernan Jone Telleria bergararraren margolanak daude ikusgai hil honen bukaeraraino; materia mistoz egindako margoak dira

### ERREDAKZIOA

Villabonako Maxola tabernan erakusketa ezberdina egiteko ohitura hartu dute. «Zerbait erakusteko duenari aukera zabaltzen diogu», azaltzen du Mikel Gutierrez tabernako nagusiak. Oraingo honetan eta hil honen bukaera arte Jone Telleria margolararen lanak ikusi daitezke. Eta horrela nahi izanez gero, erosteko aukera ere badago.

Margolari bergararrak tamaina ezberdinetako koadroak erakusten ditu. Materia mistoa erabili du, batez ere akrilikoa. Barruko eta kanpoko



Batez ere akrilikoa erabili du margolari bergararrak. I. GARCIA

paisaiak islatu ditu. Estilolari dagokionez ez da ausartzen definizio bat ematera. «Hori beste batzuk esan behako lukete», azaltzen du Telleriak.

Gaur egun margolariek beren lanak erakusteko aukerak bilatu behar dituela dio: «Bakoitzaren gogoaren baitan dago hori eta leku batetik bestera mugitu behar izaten da. Kultur etxeak, tabernak, gale-riak... aukerak badaude. Gero artista bakoitzak bere kezka izaten ditu erakuslekuaren aurrean». Bergararrak batez ere Gipuzkoan erakutsi ditu bere lanak, baina Gasteizen ere ikusi ahal izan dira bere margoak.

### ZORION AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
Uxer.  
Gaur 6 urte betetzen ditu.



**URTE ASKOAN**  
Eñaut Balerdi Azpiroz (Lizartza). Gaur urtebete. Familia guztiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Oier Garaiburu (Berastegi).  
Gaur 2 urte.  
Zorionak ebekoaren partetik.

**HITZA,**  
zorion agurren  
tarteak

**Mesedez,  
argazkia bi egun  
lehenago ekarri.  
Mila esker!**

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behe  
**TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa  
**LEITZA**